



ERABAKIA, 2021ko abuztuaren 2koa

Vitoria - Gasteiz,

██████████ (NAN: ██████████) IV OBE-IRUÑA-VELEIAKO ONDAREA BABESTU/ASOCIACIÓN PARA LA PROTECCIÓN DEL PATRIMONIO DE IRUÑA-VELEIA elkartearen (jakinarazpenetarako helbidea: ██████████) izenean eta ordezkartizan aurkeztutako erreklamazioa aztertu du Gardentasunaren Foru Kontseilu honek, hain zuzen, informazio publikoa eskuratzeko 2021eko otsailaren 5ean aurkeztutako eskaera ezestekoaren aurkakoa.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2021eko otsailaren 5ean, erreklamatzailleak informazio eskaera aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailean, eta bertan honako hau azaldu zuen:

(...) Euskal ondarea ezagutzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia kontuan hartuta, bereziki elkarte honentzat, baina baita euskal gizarte osoarentzat ere, eta aipatutako arauetan oinarrituta, eta, bereziki, urriaren 1eko 39/2015 Legean, abenduaren 9ko 19/2013 Legean, maiatzaren 9ko 6/2019 Legean eta ekainaren 25eko 16/1985 Legean, hau

ESKATZEN DUT: *Idazki hau eta honekin batera doazen dokumentuak aurkeztutzat eman ditzazula, eta izapideak onartu eta dagozkion eginbideak egin ondoren, ahalik eta lasterren ebaz dezazula:*

1) Iruña Veleiako aztarnategian edo haren aurkikuntzetan (ondarezko higiezinak, higigarriak edo immaterialak izan) eragina izan dezakeen edozein erabaki, jarduketa edo neurritan, bai eta administrazio espedienteetan ere, interesduntzat eta alderditzat hartzea.

2) Iruña Veleiako aztarnategiari edo haren edozein motatako aurkikuntzei (ondare higiezina, higigarria edo immateriala izan) buruzko informazioa ematea, bai eta administrazio izapide edo jarduketaren xede izan daitezkeen administrazio espediente guztien kopurua eta erreferentzia ere, betiere Arabako Foru Aldundiari badagozkio.

3) Administrazio horri dagozkion administrazio espedienteetarako irispidea ematea, baldin eta espediente horietan Iruña Veleiako aztarnategiari edo haren edozein motatako aurkikuntzei buruzko informazioa badago, eta, ondorioz, baimena ematea kontsultatzeko, aztertzeko eta haren kopia edo edukia eskuratzeko, haietako bakoitza zure eskura jarri ondoren.



4) *Iruña Veleiako aztarnategian egindako aurkikuntzen katalogoa ematea edo eskuragarri jartzea, eta arkeologia pieza bakoitza non aurkitu den, trazabilitatea, zaintza eta babes neurriak eta datazio azterketak jakinaraztea, bai eta horien txostenak eta analisiak ere.*

5) *Ondarea babestea, kontserbatzea, mantentzea eta ikertzea helburu duten Iruña Veleiako aztarnategiarekin edo horien edozein motatako aurkikuntzekin zerikusia duten kontratu publiko guztien kopurua eta erreferentzia ematea.*

Bigarrena.- 2021eko apirilaren 26an jakinarazitako idazki baten bidez, Kultura zuzendariak ukatu egin zuen eskatutako informazioa, erreklamatzailerak ordezkatzen duen elkarte ezin delako interesduntzat jo Iruña Veleiari buruzko edozein administrazio jarduketatan.

Hirugarrena.- 2021eko maiatzaren 28an, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen Erregistroan erreklamazio idazki bat sartu zen, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea urratzeagatik. Idazki horretan, Kultura Sailaren erantzuna baliogabetzeko eskatu zen, bai eta Iruña Veleiako aztarnategiarekin edo bertan egindako edozein aurkikuntzarekin lotutako dokumentazioa eskuratzeko ere. Euskal Batzordeak gaiaz arduratzeko eskumenik ez zuenez, Gardentasunaren Foru Kontseiluari bidali zion, hari erantsita zihoan dokumentazio honekin batera: 1) Eusko Jaurlaritzan 2020ko irailaren 18an aurkeztutako informazioa eskuratzeko eskaeraren kopia; 2) eskaera horri emandako erantzunaren kopia, 2020ko urriaren 23an irteera erregistroa zuena; 3) Arabako Foru Aldundiari 2020ko abenduan bidalitako informazioa eskuratzeko eskaeraren kopia; 4) Arabako Foru Aldundiko Kultura zuzendariak bidalitako idazkiaren kopia.

OINARRI JURIDIKOAK

1. Bat etorri 1/2017 Foru Arauaren 35.3 artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, Gardentasunaren Foru Kontseiluak eskumena du foru sektore publikoko edozein erakundek espreski edo ustez hartutako ebazpenen aurrean gardentasunaren arloan egiten diren erreklamazioak aztertzeko eta ebazteko.

Erreklamaziogileak egindako eskaerak eskatzen zuen interesdun izaera ematea Iruña Veleiako aztarnategiari eragin diezaiokeen edozein erabaki, jarduera edo neurritan, bai eta aztarnategi horri buruzko informazioa (administrazio espedienteak, kontratu publikoak, etab.) eta aztarnategi horretan egindako aurkikuntzen katalogoa eskuratzeko aukera ere. Berariaz oinarritzen zuen eskaera Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, APAPPEL), Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legean.



Egia da erreklamatzailleak bere uziak oinarritu zituela informazio publikoa eskuratzeko araubide desberdinak dituzten arauetan (administrazio prozedura, gardentasuna, kultura ondarea), baina Kultura zuzendariak ukatu egin zuen eskaera, uste baitu APAPELen xedatutakoari atxikiz, ordezkatzen duen elkarteak ezin dela interesduntzat jo Iruña Veleiari buruzko edozein administrazio jarduketatan, eta, gainera, honako hau zehazten du: "ezin zaie sarbide orokorrik eman administrazio espedienterik osatzen ez duten aztarnategiko aurkikuntzei".

Gauzak horrela, [REDACTED] egindako informazio eskaerak nahasmena sor balezake ere herritarrek informazio eskaerak egiteko erabil ditzaketen zenbait araubide argudiatzean, eta Kultura Sailak informazioa ukatzeko arau bloke jakin bat aukeratu bazuen ere (administrazio prozedura erkideari buruzkoa), argi dago Kontseilu honek eskumena duela IV. OBE-IRUÑA-VELEIAKO ONDAREA BABESTU/ASOCIACIÓN PARA LA PROTECCIÓN DEL PATRIMONIO DE IRUÑA-VELEIA elkartearen izenean bere garaian informazioa eskuratzeko egindako eskaeraren berri izateko.

2. Ebazpen hau emateko eskumen organikoari buruzko erregela orokorrak zehaztu ondoren, egokia da hura eragin duen eskaeraren xedea aztertzea. Alde horretatik, espedienteen jasotako aurrekariaren arabera, honako hau da:

1) Iruña Veleiako aztarnategian edo haren aurkikuntzetan (ondarezko higiezinak, higigarriak edo immaterialak izan) eragina izan dezakeen edozein erabaki, jarduketa edo neurritan, bai eta administrazio espedienteetan ere, interesduntzat eta alderditzat hartzea.

2) Iruña Veleiako aztarnategiari edo haren edozein motatako aurkikuntzei (ondare higiezina, higigarria edo immateriala izan) buruzko informazioa ematea, bai eta administrazio izapide edo jarduketaren xede izan daitezkeen administrazio espediente guztien kopurua eta erreferentzia ere, betiere Arabako Foru Aldundiari badagozkio.

3) Administrazio horri dagozkion administrazio espedienteetarako irispidea ematea, baldin eta espediente horietan Iruña Veleiako aztarnategiari edo haren edozein motatako aurkikuntzei buruzko informazioa badago, eta, ondorioz, baimena ematea kontsultatzeko, aztertzeko eta haren kopia edo edukia eskuratzeko, haietako bakoitza zure eskura jarri ondoren.

4) Iruña Veleiako aztarnategian egindako aurkikuntzen katalogoa ematea edo eskuragarri jartzea, eta arkeologia pieza bakoitza non aurkitu den, trazabilitatea, zaintza eta babes neurriak eta datazio azterketak jakinaraztea, bai eta horien txostenak eta analisiak ere.

5) Ondarea babestea, kontserbatzea, mantentzea eta ikertzea helburu duten Iruña Veleiako aztarnategiarekin edo horien edozein motatako aurkikuntzekin zerikusia duten kontratu publiko guztien kopurua eta erreferentzia ematea.



█ eskaera nola formulatuta zegoen ikusita, komeni da gogoraraztea GIPEGOLen 19.2 artikulua, informazio publikoa eskuratzeko eskaera izapidetzeari dagokionez, hau xedatzen duela: "eskaerak informazioa behar bezala identifikatzen ez duenean, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean zehazteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, atzera egin duela ulertuko dela, eta ebazpena emateko epea etengo dela".

Laburbilduz, eskaeraren xedea da Iruña Veleiako aztarnategiko edo haren aurkikuntzetako edozein erabaki, jarduketa, neurri, kontratu publiko eta informaziori buruzkoa, geroko zehaztapenik gabe. Eskabidean abstrakzio maila handia dagoenez, arrazoizkoa dirudi ondorioztatzea Kultura Zuzendaritzak informazio publikoa eskuratzeari buruzko araudiaren aurreikuspenak behar bezala aplikatzearen ondorioa hau izango zela: erreklamatzailerak informazioa eskuratzeko egindako eskaeran, aipatutako zuzendaritza unitateak GIPEGOLen 19.2 artikulua aplikatu izana eta, ondorioz, █ helarazi eskaera, behar bezala identifika zezan eskatzen zuen informazioa.

Ondorioz, eta aurreko apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, Gardentasunaren Kontseilu honen iritziz, jarduketak atzera eraman behar dira Kultura Zuzendaritzak eskatzaileari eskaera bidali behar zion unera, eskaeraren xedea zuzendu eta zehatz zezan, eta, ondorioz, geroago, gardentasunari buruzko araudiaren esparruan ebatzi ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, hau hartu du:

EBAZPENA

Lehenengoa. Azaldutako aurrekariak eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, jarduketak atzera eraman behar dira, GIPEGOLren 19.2 artikuluan jasotakoaren arabera, █ behar bezala identifika dezan eskatzen duen informazioa, eta Kultura eta Kirol Sailak ebatzi ahal izan dezan planteatutako eskaera, otsailaren 20ko 1/2017 Foru Arauan jasotakoa betez.

Bigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Lexuri Ugarte Aretxaga
Mahaiburua

Inés Vadillo Alzola
Kontseilukidea

Daniel Martínez Monge
Kontseilukide-idazkaria